**AKORDIOA, IV. SAILKAPEN TALDEKO (KATEGORIA PROFESIONALA: JARDUERA ESPEZIFIKOTARAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA, ESPEZIALITATEA: ARGITALPENAK ETA ARTE GRAFIKOAK) LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK HAUTATZEKO PROZESUAREN EPAIMAHAIARENA. DEIALDI HORI 2018ko AZAROAREN 2ko ERREKTOREAREN ERABAKIAREN BIDEZ EGIN ZEN.**

Epaimahai honek hainbat idatzi jaso ditu, argitaratutako galdera zerrendetako hainbat galderaren inguruko akatsen, zalantzen eta desadostasunen berri ematen dutenak.

Era berean, azterketaren nondik norakoei buruzko galderak jaso ditu.

Horiek aztertu ondoren, eta Deialdiaren Oinarri Orokorren zortzigarren eta hamargarren puntuan eta Oinarri Espezifikoen hirugarren puntuan (biak ere UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan jasotakoak) aurreikusitakoa kontuan hartuta, IV. sailkapen taldeko (Kategoria profesionala: Jarduera Espezifikotarako Teknikari Laguntzailea; espezialitatea: Argitalpenak eta Arte Grafikoak) lan kontratudun langile finkoak hartzeko hautapen prozesuaren **epaimahaiak** honako hau erabaki du:

**LEHENA.-** Galdetegian jasotako hainbat galderaren gaztelaniazko eta/edo euskarazko idazkera aldatzea, hobeto uler daitezen. Honako galdera hauek dira:

- Zati orokorra: 53, 54 eta 72
- Zati espezifikoa: 109, 149, 257, 258 eta 262

Galdera horien behin betiko idazketa akordio honi erantsi zaio.

**BIGARRENA.-** Oinarri Espezifikoen 3.1.1. atalaren lehen paragrafoarekin bateraezinak izan daitezkeenez, honako galdera hauek baliogabetzea:

Zati orokorra: 90 eta 92
Zati espezifikoa: 95, 98, 101, 150, 152, 183, 253, 263, 281, 320, 329, 342, 350, 395 eta 412

**HIRUGARRENA.-** Aipatutako idatzietan alegatutako gainerako galderen idazketa bere horretan uztea.

**LAUGARRENA.-** Jakitera ematea hautagai bakoitzak azterketa egiteko unean aukeratu ahal izango duela bai azterketa egiteko hizkuntza, bai ariketa praktiko mota.

**BOSGARRENA.-** Oinarri espezifikoen 3.1.2 puntuan adierazitako alde praktikoa egiteari dagokionez, epaimahaiak gutxienez proposatuko dituen 5 kasu praktikoetako bat ebaztea hautatzen duten pertsonek, kasu horietan eskatutako edukiak eta haien garapenak kontuan hartuta, EZINGO dute erabili inolako kontsulta materialik.

Era berean, epaimahai honek bi parte hartzaileen eskaerak jaso ditu. Bertan, behar bezala egiaztatutako inguruabar pertsonalak direla eta, azterketaren egunerako hainbat egokitzapen egiteko eskatzen dute, azterketa gainerako hautagaien baldintza berberetan egin ahal izateko. UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak igorritako txostenak aztertu ondoren, epaimahai honek bere egiten ditu zerbitzu horrek emandako gomendioak, eta honako hau erabaki du:

- **4**7*2*0* NAN zenbakia duen hautagaia:** hala behar bada, lehen zatiaren (teorikoa) proba bakarra egiteko 30 minutu gehiago izango ditu, eta beste horrenbeste bigarren zatia (teoriko-praktikoa) egiteko. Horrez gain, azterketa ikasgelan kokapen egokia emango zaio, gainerako parte hartzaileek proba amaitzen dutenean ahalik eta eragozpen txikiena jasan dezan.
- **7*9**4*3* NAN zenbakia duen hautagaia:** ikasgelan epaimahaiko kideetatik gertu dagoen leku batean jarriko zaio, proba egin aurretik, egin bitartean eta amaitzean emango dituzten ahozko argibideak behar bezala jaso ditzan; epaimahaiak, edonola ere, ahozko mezuak eta argibideak egoki ulertu direla bermatuko du, haiek errepikatuz edo, hala behar bada, idatzita emanez.

Leioa, 2019ko urriaren 7a

Epaimahaiko idazkaria

Firmado digitalmente por MORO DE ARRIBA MANUEL JESUS - 11908210Y
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, serialNumber=IDCES-11908210Y, givenName=MANUEL JESUS, sn=MORO DE ARRIBA, cn=MORO DE ARRIBA MANUEL JESUS - 11908210Y
Fecha: 2019.10.07 09:14:02 +02'00'

Jesús Moro de Arriba

## ERANSKINA. Idazketa aldatu zaien galderak

## ZATI OROKORRA

| EUSKARA | GAZTELANIA |
|---|---|
| **53. UPV/EHU-ko AZP-ko lan-kontratudun langile finkoek borondatezko eszedentzia eskatzeko eskubidea dute?**<br>a) Gutxienez urtebeteko antzinatasuna badute enpresan.<br>b) Ez dute halako eskubiderik; funtzionarioek bakarrik dute.<br>c) Gutxienez bi urteko antzinatasuna badute enpresan.<br>d) Gutxienez bi hirurteko aitortu badituzte. | **53. ¿El PAS laboral fijo de la UPV/EHU tiene derecho a solicitar una excedencia voluntaria?**<br>a) Si es personal con al menos un año de antigüedad en la empresa.<br>b) No tiene este derecho, que sólo asiste al personal funcionario.<br>c) Si es personal con al menos dos años de antigüedad en la empresa.<br>d) Si es personal con dos trienios reconocidos. |
| **54.** ***Idazketa mantentzen da*** | **54. De entre los siguientes sólo un puesto de trabajo corresponde al personal laboral de la UPV/EHU.**<br>a) Auxiliar administrativo.<br>b) Ayudante de Biblioteca.<br>c) Técnico Auxiliar de Biblioteca<br>d) Técnico Especialista de Laboratorio. |
| **72. Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer-nolako hutsegitea da bateraezintasunari buruzko arauak ez betetzea?**<br>a) Falta oso larria.<br>b) Falta oso arina.<br>c) Falta larria.<br>b) Falta arina. | **72.** ***Idazketa mantentzen da*** |

## ZATI ESPEZIFIKOA

| EUSKARA | GAZTELANIA |
|---|---|
| **109. Zer da tinpano bat?**<br>a) Papera biratzen duen gailua.<br>b) Presiopean jarduten duen elementu bat.<br>c) Koadernaketa baten bizkar-jostura.<br>d) Gehiegizko tinta kentzeko erabiltzen den tresna bat. | **109. Un tímpano es…**<br>a) Un aparato que le da la vuelta al papel.<br>b) Un elemento que trabaja por presión.<br>c) El cosido del lomo de una encuadernación.<br>d) Un instrumento que se usa para quitar el exceso de tinta. |
| **149. Nola amaitzen da luxuzko azal gogorrez koadernatzeko lana?**<br>a) Azalak ipiniz.<br>b) Babesorriak ipiniz.<br>c) Bizkarrak ipiniz.<br>d) Estaldurak ipiniz. | **149. La encuadernación en cartoné de lujo, ¿cómo finaliza?:**<br>a) Colocando las tapas.<br>b) Colocando guardas.<br>c) Colocando lomeras.<br>d) Colocando revestimiento |
| **257. Zer da paper satinatua?**<br>a) Paper mota bat da; akabera matea du, zeina prentsaketan aplikatzen baita metalezko danbor bero eta leundu batekin.<br>b) Paper mota bat da; akabera oso distiratsua du, eta aldizkari eta egunkarietan erabiltzen da bereziki.<br>c) Paper mota bat da; akabera oso distiratsua du, zeina prentsaketan aplikatzen baita metalezko danbor bero eta leundu batekin.<br>d) Paper mota bat da; akabera oso distiratsua du, zeina inprimatze osteko prozesuan aplikatzen baita. | **257. ¿Qué es el papel satinado?**<br>a) Un tipo de papel con un acabado mate que se aplica durante el prensado con un tambor de metal caliente y pulido.<br>b) Un tipo de papel con un acabado muy brillante y que se utiliza especialmente en revistas y periódicos.<br>c) Un tipo de papel con un acabado muy brillante que se aplica durante el prensado con un tambor de metal caliente y pulido.<br>d) Un tipo de papel con un acabado muy brillante que se aplica durante el proceso de postimpresión. |
| **258. Zer da *cartridge*?**<br>a) Egunkariak inprimatzeko erabiltzen den paper zuria.<br>b) Arkatzez edo tintaz marrazteko bereziki erabiltzen den paper zuri lodia.<br>c) Paper-orez egiten den eta koadernatze merkeenetan erabiltzen den papera.<br>d) Kartoia edo kartoi mehea. | **258. ¿A qué se denomina *cartridge*?**<br>a) Al papel blanco utilizado en la impresión de periódicos.<br>b) Al papel blanco grueso usado sobre todo para dibujos con lápiz o tinta.<br>c) Al papel realizado con pulpa de papel y utilizado en las encuadernaciones más económicas.<br>d) Al cartón o cartulina. |
| **262. Konfigurazioari dagokionez, offset makinak nolakoak izan daitezke?**<br>a) Eskuzkoak eta automatikoak.<br>b) Probatako prentsak, pleguen prentsa birakariak eta bobinetazko prentsa birakariak.<br>c) Probatako prentsak eta birakariak.<br>d) Kolore bakarrekoak eta bi koloretakoak. | **262. En cuanto a su configuración, las máquinas offset pueden ser**<br>a) Manuales y automáticas.<br>b) Prensas de pruebas, prensas rotativas de pliegos y prensas rotativas a bobinas.<br>c) Prensas de pruebas y rotativas.<br>d) Monocolores y bicolores. |